# [Beasain agenda] 2009ko uztaila

## Buztin eta zeramikako ikasleen lanak

**3tik 12ra**

Ordutegia:

Laneguneten: 19:00etatik 21:00etara.

Jaiegunetan: 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara

## 5, 10 eta 15€ko taloiak banatuko zaizkie bazkideei Beasaingo dendetan trukatzeko




Uztailetik aurrera kiroldegiko bazkideek taloi bat jasoko dute Beasaingo Bareak Merkatari Elkarteko kide diren denda eta tabernetan trukatzeko. Bazkidetza motaren arabera, 5, 10 eta 15 €ko txekeak izango dira eskuragarri kiroldegiko harreran.

## El equipo humano

El polideportivo Antzizar es de titularidad pública con gestión privada. El Ayuntamiento contrató en 2006 a la empresa Masquatro para 15 años y en Beasain trabaja un equipo de unas 25 personas, a las que hay que sumar trabajadores municipales que representan al Ayuntamiento. A partir de ahora, y con las nuevas instalaciones, el objetivo de la empresa gestora es ir ampliando la oferta según la demanda de los usuarios. Y de paso, captar un mayor número de socios para que el nuevo equipamiento consiga autofinanciarse. Hoy en día cuentan con más de 3.500 abonados.

## Entran en vigor **las nuevas tarifas**

Tras mantener las tarifas a los antiguos socios sin modificación alguna durante los últimos dos años, a partir del 1 de julio entran en vigor las nuevas tarifas que detallamos aquí.

- Hay una única tarifa que da acceso a todas las instalaciones.
- **TOTALMENTE GRATIS** para las niñas y niños de hasta 5 años de edad.
- A los usuarios con Carnet Joven, jubilados y federados se les aplicará un descuento del 35%.
- A los abonados se les hará un descuento de hasta el 50% en cursos o actividades que se organicen.

### ABONATUAK/ABONADOS
Hiruhileko ordainketa / Pago trimestral

- 5 urtetik gorako haurrak/Niños de más de 5 años ........ 34 euro
- Heldua/Adulto ........ 68 euro
- Familia ........ 102 euro
- Gazte Txartelarekin/Carnet Joven ........ 44,20 euro
- Adinekoak/mayores ........ 44,20 euro
- Federatuak/federados ........ 44,20 euro

### UDAKO ABONOA / ABONO DE VERANO
Ekainetik irailera/ De junio a septiembre

- 5 urtetik gorako haurrak/Niños de más de 5 años .... 53,50 euro
- Heldua/Adulto ........ 107 euro
- Familia ........ 160,50 euro
- Gazte Txartelarekin/Carnet Joven ........ 69,50 euro
- Adinekoak/mayores ........ 69,50 euro

### ABONATUAK EZ DIRENENTZAT SARRERA SOLTEAK / ENTRADAS PARA LOS NO ABONADOS

- Haurrak/niños ........ 5 euro
- Helduak/adultos ........ 10 euro

### ORDUTEGIA / HORARIO

Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
07:00etatik 22:00etara.

Astebukaerak / Fines de semana
08:00etatik 20:00etara.



Parte del equipo de trabajo de Masquatro, la empresa gestora del polideportivo.



Paper birziklatuan egina 3557-009

# Beasain egunez egun

BEASAINGO UDAL ALDIZKARIA 2009ko uztaila 10

Beasaingo udala



# BEASAIN bizitzeko gero eta toki hobea

4 UDALAK Osasuna eta ariketa fisikoa uztartzearen aldeko apustua egin du

6 FITNESS GELA Puntako aparatuekin hornitu da

11 HANDITZE LANEK Kiroldegiko eskaintza zabaltzea ahalbidetu dute





## ANTZIZAR KIROLDEGIA

### Alkatearen txokoa...



Patxi Plazaola

Eskuetan duzun " Beasain egunez egun" udal aldizkariaren ale honetan Antzizar Kiroldegiaren birmoldaketa agertzen da.

1998. urtean, Udalak, kanpoko igerilekuen egoera kaskarra eta barrukoa txiki geratu zela tarteko, igerileku berri bat egiteko ideia mamitzen hasi zen.

Ideia lantzen hasi orduko konturatu ginen, herritarren artean, kirola, osasuna eta jolasa ulertzeko era ere aldatzen zihoala. Hor hasi ginen, Uraren gune egokia sortuz hiru ardatz horiek lotuko zituen ideia aurrera eramaten.

Hausnarketa honetan bidelagun izan da Fernando Andrés arkitektoa. Lehendik ere ezagutzen zuen Beasain, bera izan baitzen 1983an Antzizar Kiroldegia burutu zuena.

2002. urtean eman genion birmoldaketa proiektua egiteko agindua. Bere eskutik, udal ordezkariok eta teknikariek uraren inguruko instalazio ugari ikusi genituen. Guztira 10 bat aurreproiektu egin ondoren, 2006. urteko urtarrilean hasi ziren Kiroldegia handitu eta birmoldatzeko lanak.

Barruko instalazioen aurretik jorratu ziren Loinatz futbol zelai berriko eta kanpoko igerilekuko lanak.

Lanak guztiontzat luze joan badira ere, ale honetan ikus daiteke emaitza. Eraikin txukuna eta kalitatezko instalazioak beasaindarren eta goierritarren esku, kanpora irten beharrik gabe, herrian bertan urarekin gozatzeko aukera paregabea!

Ale honetan irakurri ahal izango dituzu erabiltzaile zein egile askoren iritziak, Beasaingo eta Goierriko enpresetako ordezkariak azken hauetariko asko.

MASQUATRO enpresaren esku dago Kiroldegi berrituaren kudeaketa. Beraien lehen erronka bazkide kopurua gehitzea izango da eta horretarako zerbitzuaren kalitatea indartzea dute xede.

Bestalde eta bazkideei begira, BAREAk elkartearekin batera Kirolaren Udal erakundeak promozioko kanpaina prestatu du, eraikin berriari harrera eginez.

Esan ohi den bezala, barkatu eragozpenak eta gozatu Kiroldegi berria.

En este número monográfico de la revista municipal " Beasain egunez egun" se nos presenta la remodelación del Polideportivo Antzizar.
En 1998 el Ayuntamiento inició una reflexión a la vista de las carencias de las antiguas piscinas descubiertas y del poco espacio del vaso de natación interior.
Desde los servicios técnicos deportivos del municipio plantearon decididamente el cambio de hábitos que se percibe en la ciudadanía respecto a la práctica del deporte, salud y disfrute. Se posicionaron claramente por las potencialidades de un espacio dedicado al agua ya que cubre la demanda de un espectro amplio de la ciudadanía que además de la práctica deportiva tiene en cuenta el disfrute y los aspectos saludables del ejercicio. En esta reflexión tuvimos como guía al arquitecto Fernando Andrés a quien se encargó en 2002 la elaboración del proyecto. Durante más de dos años los responsables y técnicos municipales visitaron instalaciones pioneras y se elaboraron hasta diez anteproyectos. En 2006 se iniciaron las obras de remodelación y ampliación de Antzizar Kiroldegia.
Con anterioridad se acometió la construcción del nuevo Campo de Fútbol Loinatz y en 2007 entraron en servicio las nuevas piscinas descubiertas. Aunque las obras se han demorado más de lo deseado en este número de la revista se pueden ver los frutos. Las nuevas instalaciones están al servicio de los beasaindarras y de todos los goierritarras. Instalaciones de calidad y cercanas que pueden compensar en alguna forma el tirón de Donostia y la costa.
Por otra parte, la empresa MASQUATRO encargada de la gestión del polideportivo tiene como objetivo captar nuevos usuarios ofertando para ello un servicio de calidad.
También el Instituto Municipal de Deportes ofrece junto con la asociación BAREAK bonos de compra para los abonados.
No quiero terminar sin reiterar mis excusas por las molestias que han sufrido los usuarios a lo largo de estos años y animarles a disfrutar de las nuevas instalaciones.

## Nola ikusten duzu Antzizar kiroldegi BERRITUA?



**Jose Luis Andueza**
Kirol Zerbitzua
Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia

"El proyecto de ampliación del complejo deportivo Antzizar, en el que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha participado en su financiación, se está siguiendo con gran interés desde la Dirección General de Deportes de esta institución foral. Por primera vez en Gipuzkoa, al menos en una intervención de esta importancia, se han considerado, a la hora de diseñar algunos de sus principales espacios deportivos, prioritariamente, las necesidades de práctica físico-deportiva de toda la población y no únicamente las de aquellos usuarios que practican deporte con un objetivo puramente competitivo o de mejora del rendimiento. De este modo, creo que esta intervención permitirá satisfacer, de mejor modo, las expectativas de aquellas personas que se acercan a la práctica de la actividad físico-deportiva con otros objetivos: lúdico-recreativos, para mejorar su estado de salud, para favorecer su integración social, etc. El reto que tiene por delante este proyecto va a ser demostrar que el planteamiento ha sido correcto, y que, en definitiva, permite dar una respuesta adecuada a las necesidades de práctica físico-deportiva no sólo a nivel local, sino de toda la comarca".



**Ixiar Olano**
Andoaingo Allurralde Kirol Patronatuaren zuzendaria

"Gogoa nuen Beasaingo kiroldegia ikusteko zeren gure artean asko hitz egin da eta uste dut luxua dela. Ikuspegi teknikotik begiratuta, inbertsio handia egin da eta esango nuke beharrak baino gehiago ase dela. Ur lamina oso handia da eta zerbitzu batzuk bikoiztuta ere ikusi ditut. Apustu argia egin du Udalak. Bazekien zer nahi zuen. Zeozer ezberdina nahi zuten Beasainen eta bete-betean asmatu dute. Ez dago horrelako instalazio asko eta duen biztanlegoarentzat apustu handia da. Gaur egun, Beasainen egin dutena da jarraitzen ari den ildo nagusia. Alegia, aisia eta osasunaren uztarketa. Horrek biztanleriaren segmentu ezberdinetara iristeko bidea ematen du. Azaldu zigutenez, hasiera batean igerirako kalerik ez zuten aurreikusten baina, azkenean, jarri dituzte. Orain, arkitektoak esan zuenez, igerilari federatuak beherantz doaz eta jendeak ez du igeri egin nahi. Nik hemen ez dut hori ikusten. Oreka bilatu behar da bi arlo horien artean eta horretaz ere ez dira behintzat ahaztu. Udalak ahalik eta jende gehien asetzeko hartu behar ditu erabakiak.
Bestalde, herritarrei begira ezik, horrelako instalaziorik ez dago inguruan eta horrek bultzada eman diezaioke herriari, inguruko tabernei..."



**Txema Aguirre**
Masajista

"Las nuevas instalaciones son como para felicitar a los responsables. En estos momentos, el polideportivo es la exposición del pueblo. Respecto a la instalación acuática, es, sin duda, una referencia. Me toca ver muchas, hemos estado en Holanda, Alemania... y la de aquí es un referente. Está todo hecho a conciencia. No es un balneario pero reúne las condiciones óptimas del tratamiento del agua. Hasta ahora había que ir a La Perla o al balneario de Zestoa. Es un privilegio vivir en Beasain. Y, hombre, siempre hay gente que si no se queja no se queda contenta. Quizás, falten paneles orientativos permanentes o planificar el recorrido en la zona del agua. Algunos se quejaban de que no habría espacio para nadar, pero es que tampoco se van a hacer siempre piscinas olímpicas para hacer 60 largos. Igual hay que aprender a compartir una calle de nado con otras personas, ¿no?
Yo animo a la gente a que lo pruebe. Es un complemento de calidad de vida que antes no había. Otro detalle que me gustó es que el suelo no es duro y para la gente que sufre alguna patología hay más seguridad y estabilidad. Ahora también es función nuestra darle un uso racional, que sepamos utilizarla, cuidarla y respetarla para que podamos disfrutarla durante mucho tiempo".

**Fernando Andrés,** kiroldegiaren handitze proiektuaren arkitektoa.



# “Ariketa fisikoa ulertzeko beste modu batean oinarritu gara”



**Hasierako ideia aldatzen joan da, gaur dugun ekipamendua eraiki arte, ezta?**
Urteetako lana izan da. Hasiera batean pentsatzen zen igerileku estalia egitea gaur egun aparkalekuak dauden tokian. Gero, ordea, erabilitako irizpidea izan zen instalazio guztiak gune bakar batean biltzea sarrera bakar batekin, kudeaketa errazteko asmoz. Futbol zelaia ere lekualdatu behar izan genuen kanpoko igerilekuentzat tokia egiteko.

**1983an eraiki zen Antzizar kiroldegia eta hogeitaka urteren ondoren, zaharkitua zegoela diozu. Zeintzuk dira aurre egin diezuen behar berri horiek?**
80ko hamarkadan puntako kiroldegia egin zen pilotalekuarekin, saskibaloi eta eskubaloirako kantxekin... baina kirolak beste garapen bide bat eraman du. Taldean praktikatzetik hein handi batean bakarka praktikatzera pasa da, osasuna zaintze aldera. Horrek areto gehiago eta txikiagoak eskatzen ditu. Ur guneari dagokionez, lehen txapelketetarako erabil zitekeen igerilekuari ematen zitzaion garrantzia. Gaur egun, beste aukera batzuk ere eskaini behar dira eta biak dira errespetagarriak. Ildo horretan, igeriketa ikastaroak emateko igerileku bat egin da, lehen baino txikiagoa, gaur egungo haurrek ia denek bai baitakite igeri egiten.

**Uretako jolas-parkea dirudi...**
Tira, jolas-parkeetara tarteka joan ohi gara. Ur gune hau egunerokotasunean erabiltzeko da. Ariketa fisikoa ulertzeko beste modu batean oinarritu gara. Udalak ahalegin ekonomiko handia egin du. Ohiko igerileku bat ez zuen nahi. Gogoan dut finantziazio eske Foru Aldundira joan ginenean nola esan ziguten, “azkenean, badator norbait zerbait orijinala egin nahian!”. Kirol eredua aldatuko duen apustua da eta inguru hauetan ez dago antzeko ezer.

**Obra konplexua gero...**
Ez dago errepikatzen den xehetasun bat bera. Etxebizitza bloke bat egiten denean, etxe bat egiten da eta gainontzekoak errepikapenak izaten dira. Hemen dena ezberdina da. Lan neketsua izan da. Konpondu beharreko milaka xehetasun izan ditugu.

**Oraindik makineria doitzea falta da, ezta?**
Horrelako instalazio konplexuak errodajea eskatzen du, gauza guztiek ondo funtziona dezaten. Gutxienez, urtebete bat behar da horretarako. Gauza batzuk dagoeneko ondo daude baina beste batzuk oraindik egokitu beharrean daude eta hori guztia ematen duten langileek denbora behar dute.

**Ura hotzegi dagoela, fitness gelan beroegi...**
Legeak esaten duenaren arabera, urak 26ºC-tan egon behar du baina inon ez da errespetatzen hori, zeren gutxienez 28ºC-tan ez bada jartzen, jendeak protesta egiten du. Guneak bakoitza bere aldetik erregulatzeko diseinatua dago instalazioa eta mantenimenduaz arduratzen direnek ikusi beharko dute zer aldatu eta zer ez.



## Un recorrido por la zona acuática en dos palabras:







### Kalitatezko instalazioak

La zona acuática está compuesta por seis vasos que alcanzan casi 800 m² de lámina de agua. Hay una piscina para juegos y nado. Cuenta con cinco calles de natación y 300 m² de zona de juego con cascadas, río rápido, burbujas, bajadas... El jacuzzi ocupa un segundo vaso mientras que el tercero se destina a cursos y actividades. También hay una piscina infantil con una profundidad máxima de 0,60 m.

### Gozatzeko txirrista

Quizás lo más llamativo de las instalaciones, al menos desde el exterior, sea el tobogán. Un agujero negro de 85 metros de largo, una pendiente del 9% y un desnivel de 7m. A nivel estatal, sólo existe uno igual en la comunidad de Madrid y está entre los doce primeros de toda Europa. Un túnel negro donde se juega con diferentes efectos de giros, vapor... Sólo para quienes de verdad quieren divertirse.

### Uraren ezaugarri terapeutikoak

La zona de aguas termales con diferentes cañones de masaje es el sitio ideal para relajar el cuerpo y disfrutar de las propiedades curativas del agua. Hay una sauna con capacidad para 15 personas, un baño turco, duchas con efectos especiales, fuente de hielo y tumbonas calientes.

**Iñaki Moyua**
**Igartza Igeriketa elkartea**



### “Gu pozez zoratzen gaude”

“Ikusi behar da zer geneukan lehen eta zer daukagun orain. Gu pozez zoratzen gaude berrikuntzarekin. Lehen 80 zm-ko kale bat erabili genezakeen. Orain metro eta erdiko bi kale erabil ditzazkegu. Gure elkarteari dagokionez, astero 90 bat lagun etortzen dira igerilekura hiru taldetan banatuta. Onerako izan da aldaketa. Gure beharrak, behintzat, aseta gera dira. Orain, egia da ume kopurua gorantz doala. Proiektuak kirola eta alderdi ludikoa uztartu ditu”.



**Mikel Esnaola, Xabier Urteaga eta Jon Sansebastian**
**Erabiltzaileak**

### “Gehien gustatzen zaiguna txirrista da”

“Gehien gustatzen zaiguna tobogana edo txirrista da. Orain eskolatik igeri ikastarora etortzen gara eta ez digute uzten txirristan ibiltzen, baina gurasoekin etortzen garenean, bai. Eta jacuzzia ere oso ondo dago, burbuilekin-eta... ahal dugun guztietan etortzen gara ondo pasatzera”.

**Aurelia Pulido**
**Usuaria**



### “Si llevo un tiempo sin venir, noto que el cuerpo está peor”

“Yo vengo mucho al polideportivo. Me sienta bien. Si llevo un tiempo sin venir, en seguida noto que el cuerpo está peor. Además, ahora con la ampliación, hemos ganado en comodidad. Para nadar, por ejemplo, tenemos más sitios, porque antes con los cursillos nos quedábamos sin espacio. La gente está bastante contenta. Algunos protestan por las duchas. Lo cierto es que tienes dónde elegir. Me parece que es un lujo tener todo eso”.

# Punta-puntako fitness gela



Atentzioa ematen du. Merkaturatutako azken aparatuekin hornitu dute Beasaingo fitness gela. Kiroldegiaren kudeaketaz arduratzen den Masquatro enpresak lehentasuna eman nahi izan dio gimnasia aretoari eta enpresak bere gain hartu du gune horren finantziazioa. Areto erakargarri bat egitea izan dute helburu. Lehengo gimnasioa argi artifizialeko eta bistarik gabeko eremu batean zegoen kokatua. Orain, makinetako erabiltzaileek igerilekuak ikus ditzakete, beirate handi baten bitartez.

Gainera, eraikuntzaren handitzeak Indoor Cycling eta beste zenbait ikastaro eskaintzeko areto balioanitzak ahalbidetu ditu. Alegia, esku-hartzeak dagoena mantentzeaz gain, eskaintza zabaltzeko aukera politak eman ditu.



**Karmele Alkaiaga y Pruden Indurain,**
Gerente del polideportivo y gerente de la empresa gestora Masquatro, respectivamente.

**Además de la zona acuática, han querido contar con una sala de fitness de última generación.**

**Pruden Indurain:** Cuando vine por primera vez, la verdad es que me sorprendió la gran sala que había. Eran instalaciones punteras, pero hemos querido sacarlo del sótano y ubicarlo encima de las piscinas con vistas. De una sala con luz artificial, hemos pasado a tener una sala diáfana, con vistas, agradable.

**Ahora pueden ampliar la oferta de actividades, ¿no es así?**

**P.I.:** Desde 2006, hemos intentado mantener las actividades que se venían ofreciendo porque no podíamos ampliar la oferta manteniendo un clima confortable. Ahora contamos con una sala más para Indoor Cycling y aerobic e incluso podemos equipar dos más a las que tenemos que pensar qué utilidad dar. Igual hacemos una bolera donde antes estaba la sala de fitness. Y nos queda la parte de los vestuarios de fútbol y la zona de la piscina cerrada de antes. Podemos irlas adaptando aunque requieren una inversión. En estos momentos estamos analizando tendencias y actividades y formando al personal.

**Karmele Alkaiaga:** En Beasain, antes, el referente era el gimnasio. Todavía estamos en proceso. La gente echa en falta alguna máquina. Las espalderas, por ejemplo, todavía no se han colocado aunque estarán en breve. Respecto a las actividades, durante el tiempo en el que han transcurrido las obras, se ha intentado mantener la oferta.

**P.I.:** A mí me gustaría equipar cada año con una máquina nueva u ofrecer alguna actividad novedosa. Estar encima e ir renovando.

**K.A.:** Estamos abiertos a las demandas de la gente.

**Se puede pasar aquí una tarde entera o más sin tiempo para aburrirse.**

**K.A.:** El tipo de usuario cambia. Los fines de semana vienen familias con niños. Entre semana, tenemos más a personas que vienen de forma individual o chavales que están realizando algún cursillo.

**P.I.:** El tener un conjunto total de instalaciones, hace que la gente tenga de todo, aunque sí faltan algunas cosas. Por ejemplo, una zona de sombra en las piscinas descubiertas. En general, es una instalación espectacular para una población comarcal de 20.000 habitantes y se irá adaptando según las necesidades que vayan surgiendo.







Beasain
egunez egun
Polideportivo ANTZIZAR Kiroldegia

**Ana Alonso.** Erabiltzailea.

## "En el gimnasio, echo en falta las espalderas"

"Bai igerilekuak bai fitness gela oso ondo daude. Gimnasioan horma-barrak botatzen ditut faltan. Gertatzen dena da dutxetan ura kiskaltzen ateratzen dela eta aldagela berrietan daudenetatik, berriz, oso ur zorrotada txikia ateratzen da. Taldekako aldagela bat ere nahiko nukeen. Orain, kabina indibidualak daude eta jende gehiagok ere esan dit lehen bezalakoak nahiago lituzkeela. Baina tira, oso ondo dago horrelako kiroldegi bat Beasainen izatea. Onena, igerilekuak".



**Mikel Valdivielso.** Usuario.

## "Hemos estado en una situación precaria en estos dos últimos años"

"Orokorrean jendea oso gustura dago, baina nire ustez orokorrean kirola osasunarekin lotzen duen jendeari zuzenduta daude instalazioak. Adibidez, atletismoko pista bat ere aldarrikatzen genuen. Igeriketarako ere Beasainek beti izan du arazoa zeren eskualdeko haurrak hona etorri izan dira. Ez da ez digutela entzun, baina beste esparru bati heldu diote. Gainontzean, fitness gela oso ondo dago baina bi gauza zuzenduko nituzke. Batetik, sekulako beroa dago. Bestetik, txirrindu gehiago jarriko nituzke, batik bat negura begira. Edonola ere, azpimarratu nahiko nuke aurreikusitako epeak ez direla inondik inora bete eta oso egoera eskasean egon garela azken bi urteetan".



**Pedro Jose Uranga.** Erabiltzailea.

## "Si la gente conociera estas instalaciones, se animarían más a venir"

"Martxoan hasi nintzen kiroldegira etortzen emazteak aginduta. Lehen ibili egiten nintzen baina iaz Ernion erori egin nintzen eta zerbikaletako arazoak izan ditudanez, medikuak igeriketa aholkatu zidan. Pozik etortzen naiz. Gimnasia terapeutikoko ikastarora etortzen naiz. Baina horretaz gain, neure kasara ere ibiltzen naiz. Gustura, gainera. Zoragarria da hau. Ikusi gabe ez dago sinesterik. Nire adineko jendeak ikusiko balu, uste dut gehiago animatuko liratekeela. Sendagileek ariketa fisikoa egiteko esaten dute eta horrelako tokia etxe ondoan edukita, gozatu egin behar da".



# Lanordu eta izerdi asko



Kiroldegiaren handitze lanak ez dira ahuntzaren gau erdiko eztula izan. Denbora asko joan da, esku-hartze konplexua izan delako. Orain, azken ukituak ematen ari dira. Hona obretan parte hartu duten zenbait enpresen egitekoa.

## Jose Uribetxeberria — BEASAIN LANTZEN

"Beasain Lantzen udal sozietate publikoa gremioak koordinatzeaz eta lanen jarraipena egiteaz arduratu da. Izan ere, bi eraikin, zaharra eta berria, komunikatzeak bere konplexutasuna izan du. 23 enpresa kontratatu dira eta aldi berean zazpi edo zortzi jardun dira lanean. Bakoitzak bazekien zer egin baina ondo uztartu beharra egon da. Funtzionaltasuna bilatzea zen garrantzitsua".



## Luis Mari Sánchez — URGASKA

### "La inversión en placas solares estará recuperada en siete años"

"Eguzki plaken instalazioaz arduratu gara. la 400 m² plaka jarri dira teilatuan. Ez dira argindarra sortzeko, baizik eta ahalik eta gehien ura berotzeko. Alegia, ura 10ºCtan sartzen bada eta 60ºCtan dutxatzen bagara, plakekin igotzea lortzen dugun hori da justu aurreztenduguna. Eguzki energiaren 100% aprobetxatzen da. Plaken bidez ur sanitarioa %30ean berotu daiteke edo gehiago, baina noski egiten duen eguraldiaren araberan dago portzentaia. Eguzki gutxi badago, errendimendua baxua da. Bestetik, beharrezkoa da mantenimendu plan bat martxan jartzea ahalik eta gehien iraun dezaten eta hori ere aurreikusita dago. Plakekin egindako inbertsioa zazpi urteren buruan berreskuratuko da".



## Javier Urzaa — ONDOAN

### "Hezetasunaren aurkako makinek jasotzen duten beroa ura berotzeko erabiliko da"

"ONDOAN, S.COOP. ha realizado las instalaciones de climatización, calentamiento de vasos de piscinas y agua caliente sanitaria. Cada una de las zonas, en función de su uso, tiene una temperatura del agua diferente, que oscila desde los 28 ºC hasta los 34 ºC. Asimismo en el ambiente de cada una de ellas se mantendrá una temperatura de 2 ºC por encima de la temperatura del agua. Por ejemplo, la calefacción de las zonas de piscina se realiza mediante un sistema de suelo radiante, acompañado de equipos de deshumidificación que renuevan el aire del local y ayudan a conseguir el calentamiento del ambiente de forma más rápida.

La deshumidificación del ambiente se realiza mediante equipos deshumidificadores ad-hoc y el calor recuperado por dichos equipos se utiliza para calentar el agua del vaso de piscina, lo que supone un importante ahorro energético. También se han instalado dos calderas de 895 kW cada una para la calefacción, la producción de ACS y calentamiento del vaso. Por su parte, los locales de fitness y el hall de entrada se tratan con equipos autónomos tipo bomba de calor".



## Asier Gurrutxaga — EUN

### "El material para las taquillas y las cabinas de los vestuarios se ha traído de Austria"

"Aldageletako kabinak eta armairuak jarri ditugu guk. 760 armairu. Erabilitako materiala fenolikoa da, erretxinez egindako egurra da, onena hezetasunarentzat. Gainera, oso gogorra da. Austriatik ekarri dugu. Munduan hiru fabrikatzailek baino ez dute egiten. Estatuan badaude batzuk baina kolore jakin batzuk bakarrik dituzte. Arkitektoak nahi bezala, berdea erabili dugu. Sarrerako eta igerilekuetako erakusmahaiak ere gureak dira. Eta azkenean, gauza mordo bat errematatu behar izan ditugu".



## Emilio Alonso — ALPE POOLS

### "Hemos instalado un generador de cloro propio"

"Somos constructores de vasos de piscinas y sistemas de tratamiento de aguas. Hacemos piscinas de acero inoxidable con una tecnología que consiste en la laminación en caliente de PVC sobre acero. A partir de ahí se van uniendo los paneles sólo mediante la tornillería. Eso permite que sean autoportantes y antisísmicos, mientras que el hormigón puede partirse ante cualquier movimiento del edificio. Respecto al tratamiento del agua, tiene carácter vanguardista, por ejemplo, el que hayamos puesto un generador de cloro propio, de modo que no es necesario almacenarlo. Las máquinas miden continuamente el estado del agua".



## Ángel Arias — AMEZ CONTROL

### "Controlamos todo el edificio, la temperatura, humedad de aire, alumbrado... para automatizar lo máximo posible "

"Eraikinaren kontrola eramaten dugu bere osotasunean. Hau da, tenperatura, hezetasuna, argiteria, igerilekuetako kloroa... datu horiek guztiak zentralizatutako kontrol sistema batean jasotzen dira eta operadore baten bidez kudeatzen dira. Ordenagailu bidez edo ukipen-pantailen bidez alda daitezke. Egia esan, kanpotik ikusten duenarentzat oso da konplexua".



## Jesus Mari Montejo — LEIAR

### "Hemos colocado 1.500 metros de cristal"

"1.500 metro kristal jarri ditugu gutxi gora-behera. Climalit markako kristal bikoitzak erabili ditugu. Duen osaera bereziagatik, %50ean saihesten dira bero-galerak. Hori ez zegoen aurreikusita baina azkenean energia aurrezte aldera, material hori erabiltzea erabaki zen. Horrek tenperaturari eusten laguntzen dio. Hilabete luzeetako lana izan da. Dozena erdi bat lagun aritu gara. Horixe da egiten duguna. 25 urte daramatza gure enpresak eta Beasainen jartzen diren kristalen %90 gureak dira, nahiz eta ezin esan krisia antzeman ez dugunik".



## Mikel Parra — IRABA

### "Obra konplexua izan da"

"Nosotros nos dedicamos a estructuras de hormigón, albañilería y acabado. Lo cierto es que se ha hecho un poco largo. La obra en sí ha sido compleja tanto porque había dos edificios terminados y porque íbamos por fases y encajar todo durante el transcurso de los trabajos ha sido complicado. Además, el arquitecto, Fernando Andrés, es muy detallista y se ha hecho todo como él ha querido. Luego, claro, se nota. Ahora estamos haciendo la urbanización exterior, revestimiento de plaquetas, tableros..."



## Jon Azkarate — GEURIA

### "Todavía nos queda algún que otro detalle para acabar"

"Ateak eta kanpora ematen duten leihoak jarri ditugu. Aluminiozko arotz lanaz arduratu gara. Material onak erabili ditugu, iraungo dutenak, eta isolatzailea ere jarri dugu zaraten, hezetasunaren, e.a.en aurka. Bost langile ibili gara kiroldegian eta gustura geratu gara. Aurreikusi gabeko lanen bat ere egin behar izan dugu. Oraindik zer edo zer geratzen zaigu egiteko".

## Detalles que se han tenido en cuenta:

- Los materiales utilizados en paredes y techos son de absorción acústica, algo con lo que no cuenta casi ninguna piscina cubierta.
- Hay un sistema centralizado de control de luces, temperaturas, humedad... en el momento en que se pone en marcha trabaja por si solo e incluso el responsable puede dar instrucciones desde su casa a través del móvil. Un técnico supervisa en cada momento los vasos de agua. Puede ver desde un ordenador dónde está y qué hace cada usuario.
- En el sótano se esconde la complejísima maquinaria que hace que las piscinas funcionen. Los sistemas de saneamiento, de control de agua... Incluso se produce el cloro que se va a consumir para no tener que comprarlo.
- El agua que no se vaya a utilizar en las piscinas se aprovechará entre otras cosas para la limpieza de calles.

Eguzki plakak jarri dituzte estalkian.



Kloroa ekoizteko makina.



Ordenagailu batean jasotzen dira datu guztiak.



Sotoko instalazioak ikusgarriak dira.



# Udako beroei kontra egiteko...




2007ko ekainetik martxan daude igerileku irekiak. Urtero, 400 edo 500 bazkidek ematen dute izena udako denboraldian, justu hilabete horietako beroari kontra egin eta dauden hiru igerilekuez eta gune berdeaz gozatzeko. Izan ere, hiru igerilekuen artean, 615 m³ko ur lamina osatzen dute. Etxeko txikiak plisti-plasta ibiltzeko da bat, jolaserako bestea eta igeriketarako hirugarrena. Gozatzera gonbidatuta zaudete!



**Oihana eta Ander Albisu, Josune Iraola, Josu Leunda eta Enara Iraola**

## "Kanpokoetan, igerileku ertainekoan ibiltzen gara"

"Kanpoko igerilekuetara etortzen garenean ertainekoan ibiltzen gara. Baina onena, txirrista da. Halere, betaurrekorik gabe jaitsi behar da eta Enarak ez du nahi. Anderri, berriz, iluntasuna ez zaio gustatzen eta nahiz eta argiak pizten diren, toboganean ilunegi dago bere ustez".







# Hay donde elegir

La carta de servicios del polideportivo Antzizar incluye de cara al curso que viene dos nuevas actividades: natación para recién nacidos y aquagym. En cualquier caso, la oferta de actividades se irá adecuando según demanda.



Erabiltzaileak *Indoor Cycling* ikastaroan.

**Kirol instalazioetako eskaintza:**
- Igerileku klimatizatuak. Aisirako, irakaskuntzarako eta haurrentzako igerilekuak. Jacuzzia eta hidroterapia gunea.
- Txirrista.
- Estaligabeko igerilekuak.
- Terma gunea: sauna finlandiarra, infragorri sauna, lurrin bainua, izotz iturria, dutxa sekuentzialak eta etzaulki termikoak.
- Pilotalekua eta pilotaleku txikia.
- Kiroletako pabilioia.
- Squashak.
- Fitness zentroa.
- Arrokadromoa.
- Tatamia.
- Arku tiroketa gela.
- Tenis mahaia.
- Balio anitzeko gelak.

**Kiroletako ikastaroak eta programak:**
- Haur igeriketa, bi urtetik gorakoentzat.
- Helduen igeriketa.
- Haurdunei zuzenduriko igeriketa.
- Ikastetxeentzat igeriketa sustapen kanpainak.
- Aerobic/step.
- Mant-gym.
- Ciclo Indoor.
- G.A.P. (Gluteoak, abdominalak eta pektoralak).
- Fitness. Entrenamendu pertsonalizatuak.
- Pilates.
- Gimnasia terapeutikoa.
- Adinekoen kirola.
- Jaioberrientzako igeriketa (datorren ikasturtean).
- Aquagym (datorren ikasturtean).

**Bestelako zerbitzuak:**
- Gorputz tratamenduak: masaia, solariuma, e,a.
- Batzar aretoa.
- Kafetegia, Txikiparkarekin.



**Goiaz Estensoro eta Maddi, Ane eta Elene Rezola**

## "Beasain irabazten ateratzen da horrelako kiroldegi batekin"

"Ni lehen asko etortzen nintzen eta orain umeekin zaila egiten zait baina gozatzen hasteko gogoa dut. Gaur izen ematera etorri gara Maddik igeriketa ikastaroa egin behar duelako, baina hemendik aurrera kanpoko igerilekuetara ere etorriko gara, aurreko urteetan bezala. Barruko txirrista ere probatu nahi dugu. Beasain irabazten ateratzen da horrelako kiroldegi batekin".